

# BERTSOA UNIBERTSITATEAN



Gipuzkoako  
Foru Aldundia

**XXXIV**  
**Cursos de Verano**  
**Uda Ikastaroak**

**XXVII**  
**Cursos Europeos**  
**Europar Ikastaroak**



**Junio · Septiembre**  
**Ekaina · Iraila**  
**2015**



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

Organizadores y patrocinadores  
Antolatzaileak eta babesleak

Universidad del País Vasco  
Euskal Herriko Unibertsitatea  
Gobierno Vasco  
Eusko Jaurerria  
Diputación Foral de Gipuzkoa  
Gipuzkoako Foru Aldundia  
Ayuntamiento de San Sebastián  
Donostia Udalak

Colaborador  
Laguntzailea

Fundación **BBVA**





Donostiako Uda Ikastaroen edizio berri honetako kartel iragarleak ikastaro hauek lortu nahi dituzten helburuetako batzuk adieraztea nahi ditu, era alegorikoan:

- ⇒ Argitu nahi gaituen eguzki urdin bat, hau da, gauzak ulertzeko beharrezkoak zaizkigun ezaguerei eta arrazoiketei argia emango dien eguzki bat.
- ⇒ Freskatzeko eta berritzeko gure hondartza ertzera heltzen diren itsasoaren olatuak.
- ⇒ Kontzentratzeko, biltzeko, elkarriketan ari izateko..., forma alfabetikoz itxuratutako espazioa. Giza garapenean ideiak erregistratzea, gogoratzea eta hauei garrantzia ematea posible egin duten forma batzuk.

El cartel anunciador de esta nueva edición de los Cursos de Verano de San Sebastián pretende expresar, de forma alegórica, algunos de los objetivos que persiguen estos cursos:

- ⇒ Un sol azul que nos quiere iluminar, es decir, dar luz a los conocimientos y razonamientos necesarios para alcanzar a entender y comprender.
- ⇒ Olas del mar que nos alcanzan en la orilla de nuestra playa para refrescar y renovar.
- ⇒ Un espacio de concentración, de reunión, de diálogo, configurado con formas alfabéticas. Unas formas que han hecho posible en el desarrollo humano el registrar, memorizar y transcender.

**XXXIV.** UDA IKASTAROAK  
CURSOS DE VERANO

**XXVII.** EUROPAR IKASTAROAK  
CURSOS EUROPEOS

**BERTSOA UNIBERTSITATEAN**

ekaina-iraila **2015** junio-septiembre

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea



Iaz abiatu genuen Bertsoa Unibertsitatean eskola, arrakastatsua izan zena gainera. Bigarren edizioa izango da aurtengoa. Izenburuan ageri ez bada ere, bertsolaritzari ez ezik, ahozko beste generoek zein ahozkotasunak berak ere lekua dute eskolako ikastaro batean. Aurten ipuingintza, eta batez ere, hezkuntza arautuari begirako kantagintza nabarmendu nahi izan ditugu. Horrezaz gain, kantua eta bertsoa uztartuko dituen performance originala apailatu dugu, iazkoa bezala, guztion gozamenerako.

Eskolako bigarren ikastaldian, berriz, bertsolaritzari buruzko gogoetarako zein bertsolaritzak hain ohikoak ez dituen ikerketa esparruetako ikerketen berri emango dugu.

Aurtengo eskolak 2 ikastaro izango ditu bere baitan.

### **1. Bertsolaritza eta ahozkotasuna Hezkuntza Arautuan**

### **2. Bertsolaritzaren bidegurutzak**

Lehendabiziko ikastaroan ahozkotasunari eta ahozko generoei heldu diegu, Hezkuntza Arautua jokalekutzat harturik. Gazteak gero eta okerrago mintzatzen direla entzun ohi dugu bazterretan. Ez da hizkuntza batean edo bestean bereziki, oro har baizik. Hala ere, euskararen kasuan nabarmenagoa izan liteke herrena, egoera diglosikoa izaki, gaztelararen zein frantsesaren nagusitasuna dela medio. Aterabideak bilatzen ariko gara. Nola landu daiteke ahozkotasuna Hezkuntza Arautuaren baitan? Nola balia genitzake ahozko generoetan dauden adibide egokiak, bertsolaritzan kasu, egunerokoan balia ditzagun? Nola landu kontakizuna haurrak ahozkotasunaren gakoez jabe daitezen?

Garai batean leku nabarmena zuen euskal kantagintzak heziketan; erreferentzia garbiak zeuden. Gaur iduriz, ez dago hain argi. Eskolan euskal kantagintzarik transmititzen al da? Nola? Etxean, hedabideetan... euskal kantagintzaren presentzia ez ote da arrunt bakandu? Euskal kantaerak ba ote du berezitasunik? Eta hala balitz transmititzen al da?

Bigarren go ikastaroan bertsolaritzari buruzko gogoeta estrategikoei eta ikerketa berrienei egin diegu leku. Bertsolaritzaren mugimenduaren apustu bat da administrazioarekiko zein alderdi politikoekiko independentea izatea; denona eta denontzat izatea. Zer jarrera izan du Bertsozale Elkarteak administrazio zein alderdi

politikoen aurrean? Bertsolariak badu izatez ideologiarik, politika mailan bezala beste mailetan ere bai. Baina askotan pertsonaia emana zaielako erraza ez den arren, batzuek lortu dute bertsogintzaren bidez beraien ideologia sotilki azaleratzen. Hori erdiesteko egin gogoeta nola gauzatu duten kontatuko digute. Ez hori bakarrik; gai-jartzaileek eman gaietan kukutzen den ideologiaren berri ere emango digute. Besterik da bertsolariak saio baterako deia jaso, baiezkoa eman eta kantatu behar duen lekura iristean, benetan non kantatu behar duen konturatzen denean egin behar duen egokitzapena, bere ideologia eta testuinguruak eragiten dionaren artekoa.

Bigarren bidegurutzea transmisioarena da. 35 urte inguru pasatu dira abiatu zirenetik lehen bertso eskola *modernoak*, irakasle figura bat zutenak. Urak egin du bide geroztik eta ibilbidean ongi egindakoak eta ez hain ongi egindakoak aztertuko ditugu, egungo bertso eskola eredu auzitan jartzeraino, bertsolari zein musikari betaurrekoak jantzita.

Hirugarren bidegurutzea; ikerketa esparru berriena da. Gizarte pos-modernoaren omen gurea. Eritasun berriak ere agertu zaizkigu, eta horiek sendatzeko bidean tresna da bertsolaritza. Bertsoan aritzeak garunaren zenbait alderdi gara omen ditzake. Bertsolaritza bada bes-telako tresna ere: robotika euskalduna aitzinarazteko aitzakia bada. Bertsoak kantatuko ditu omen, bihotzik gabeko robot batek. Bihotzez ari gara, ordea, bertsolaritza zein kulturgintza.

**Karlos Aizpurua Etxarte**



## **Aurkibidea**

|  |    |
|--|----|
| K.1. Bertsolaritza eta ahozketasuna Hezkuntza Arautuan (C) ..... | 7  |
| K.2. Bertsolaritzaren bidegurutzeak (C) .....                    | 11 |
| Informazio orokorra .....  | 15 |







## Ikastaroa K.1

### BERTSOLARITZA ETA AHOZKOTASUNA HEZKUNTZA ARAUTUAN

**Zuzendaritza:** Karlos Aizpurua Etxarte  
*Mintzola Fundazioa. Villabona.*

**Lekua:** Miramar Jauregia. Donostia / San Sebastián.

**Helburuak:** Gazteak gero eta okerrago mintzatzen direla entzun ohi dugu bazterretan. Ez da hizkuntza batean edo bestean bereziki, oro har baizik. Hala ere, euskararen kasuan nabarmenagoa izan liteke herrena, egoera diglosikoa izaki, gazteleraren zein frantsesaren nagusitasuna dela medio. Aterabideak bilatzen ariko gara. Nola landu daiteke ahozkotasuna Hezkuntza Arautuaren baitan? Nola balia genitzake ahozko generoetan dauden adibide egokiak, bertsolaritzan kasu, egunerokoan balia ditzagun? Nola landu kontakizuna haurrak ahozkotasunaren gakoetz jabe daitezen?

Garai batean leku nabarmena zuen euskal kantagintzak heziketan; erreferentzia garbiak zeuden. Gaur iduriz, ez dago hain argi. Eskolan euskal kantagintzarik transmititzen al da? Nola? Etxean, hedabideetan... euskal kantagintzaren presentzia ez ote da arunt bakandu? Euskal kantaerak ba ote du berezitasunik? Eta hala balitz transmititzen al da?



**Mintzola ahozko lantegia eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua-ren lankidetzaz**

*Matrikula prezioa: maiatzaren 31ra arte: 60 €. Ekainaren 1etik aurrera: 68 €*

*Balio akademikoa: 20 ordu*

*Hizkuntza ofiziala: euskara*



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



## EGITARAUA

### UZTAILAK 6

#### AHOZKOTASUNA ETA GAZTEAK

|          |   |
|----------|---|
| 09:00ean | Dokumentazio banaketa   |
| 09:15ean | “Ahozkotasuna eta Hezkuntza Arautua”<br><b>Inma Muñoa Barredo</b><br><i>Ahozkotasunean aditua. Ikastolen Elkarte.</i>   |
| 10:30ean | Etenaldia   |
| 10:45ean | “Ahozkotasunaren lanketa bertsolaritzaren bidez”<br><b>Andoni Egaña Macazaga</b><br><i>Bertsolaria. Mintzola Fundazioa.</i>                                     |
| 12:00ean | Etenaldia   |
| 12:15ean | “Entzuten ikasi, kontatzen ikasi: ipuingintza eta hizkuntza”<br><b>Itziar Zubizarreta Ayerbe</b><br><i>Ipuin kontalaria eta irakaslea. Galtzagorri Elkarte.</i> |
| 13:30ean | Laburpen saioa / Bibliografiari buruzko saioa   |

## UZTAILAK 7

### KANTAGINTZAREN TRANSMISIOAZ

- 09:15ean "Musika eta kantua txikienetik nagusienetara"  
**Jaione Eskudero Etxabe**  
*Musika eta Hezkuntza Arautuko irakaslea, abesbatza zuzendaria.*
- 10:15ean "Kanta kontuetan"  
**Itziar Irigoien Perurena**  
*Musikaria eta Hezkuntza Arautuko irakaslea.*
- 11:15ean Etenaldia
- 11:30ean "Ekialdeko euskal kantaera. Transmisioaren erronka"  
**Marie Hirigoien**  
*Kantaria eta irakaslea. Soinubila Musika Eskola.*
- 12:30ean Mahai-ingurua: "Zer eta nola transmititu kantagintza? Zer eta nola landu Hezkuntza Arautuan? Musika Eskolan?"  
**Itziar Irigoien Perurena**  
*Musikaria eta Hezkuntza Arautuko irakaslea.*  
**Marie Hirigoien**  
*Kantaria eta irakaslea. Soinubila Musika Eskola.*  
**Jaione Eskudero Etxabe**  
*Musika eta Hezkuntza Arautuko irakaslea, abesbatza zuzendaria.*
- 18:30ean **PERFORMANCEA**  
Kantaldia: 7 euskal kantu esanguratsu  
**Ainhoa Ansa Zugarramurdi**  
*Kantaria. Aranoko alkate.*  
Bertso saioa: kantu bakoitzaren ondotik bertsotan  
**Uxue Alberdi Estibaritz**  
**Igor Elortza Aranoa**





## Ikastaroa K.2

### BERTSOLARITZAREN BIDEGURUTZEAK

**Zuzendaritza:** Beñat Gaztelumendi Arandia  
*Mintzola Fundazioa. Villabona.*

**Lekua:** Miramar Jauregia. Donostia / San Sebastián.

**Helburuak:** Bertsolaritzaren mugimenduaren apustuetako bat da administrazioarekiko zein alderdi politikoekiko independentea izatea; denona eta denontzat izatea. Zer jarrera izan du Bertsozale Elkarteak administrazio zein alderdi politikoaren aurrean? Bertsolariak badu izatez ideologiarik, politika mailan bezala beste mailetan ere bai. Baina askotan pertsonaia emana zaielako erraza ez den arren, batzuek lortu dute bertsogintzaren bidez beraien ideologia sotilki azalertzeko. Hori erdiesteko egin gogoeta nola gauzatu duten kontatuko digute. Ez hori bakarrik; gai-jartzaileek eman gaitan kukutzen den ideologiaren berri ere emango digute. Besterik da bertsolariak saio baterako deia jaso, baiezkoa eman eta kantatu behar duen lekura iristean, benetan non kantatu behar duen konturatzen denean egin behar duen egokitzapena, bere ideologia eta testuinguruak eragiten dionaren artekoa. Bigarren bidegurutzea transmisioarena da. 35 urte inguru pasatu dira abiatu zirenetik lehen bertso eskola modernoak, irakasle figura bat zutenak. Urak egin du bide geroztik eta ibilbidean ongi egindakoak eta ez hain ongi egindakoak aztertuko ditugu, egungo bertso eskola erdua auzitan jartzeraino, bertsolari zein musikari betaurrekoak jantzita. Hirugarren bidegurutzea; ikerketa esparru berriena da. Gizarte post-modernoaren omen gurea. Eritasun berriak ere agertu zaizkigu, eta horiek sendatzeko bidean tresna da bertsolariak. Neurologoak ari dira bertsogintzaren arabera garuna ikertzen. Bertsolariak bada garunaren zenbait alderdi gara omen ditzake. Bertsolariak bada bestelako tresna ere: euskal robotika euskalduna aitzinarazteko aitzakia bada. Bihotzeko bertsoak kantatuko ditu omen, bihotzik gabeko robot batek.



**Mintzola ahozko lantegia eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua-ren lankidetzaz**

*Matrikula prezioa: maiatzaren 31ra arte: 80 € Ekainaren 1etik aurrera: 92 €*



Gipuzkoako  
Foru Aldundia

*Balio akademikoa: 30 ordu*

*Hizkuntza ofiziala: euskara*

## EGITARUA

### UZTAILAK 8

#### BERTSOLARITZAREN BIDEGURUTZE IDEOLOGIKOAK

- |          |  |
|----------|--|
| 09:00ean | Dokumentazio banaketa  |
| 09:15ean | “Telefonotik mikrofonora”<br><b>Andoni Egaña Macazaga</b><br><i>Bertsolaria. Mintzola Fundazioa.</i>   |
| 10:30ean | Etenaldia  |
| 10:45ean | “Bertsogintza eta ideologia”<br><b>Maialen Lujanbio Zugasti</b><br><i>Bertsolaria.</i>   |
| 12:00ean | Etenaldia  |
| 12:15ean | “Independentziaren zerga. Bertsozale Elkartearen esperientzia”<br><b>Jexux Murua Gorostidi</b><br><i>Bertsozale Elkarteko koordinatzaile ohia.</i> |
| 13:30ean | Laburpen saioa / Bibliografiari buruzko saioa  |



## UZTAILAK 9

### BERTSOLARITZAREN TRANSMISIOA: ZURI-BELTZAK ETA BELTZURIAK

- 09:15ean "Bertsolaritzaren transmisioa: argirako bide"  
**Jon Sarasua Maritzalar**  
*Bertsolaria. Euskal kulturgintzan aditua. Mondragon Unibertsitatea. Eskoriatza.*
- 10:15ean "Belarria soinu"  
**Joseba Tapia Usabiaga**  
*Musikaria. Musika irakaslea.*
- 11:15ean Etenaldia
- 11:30ean "Bestelako bertso eskola bat"  
**Estitxu Eizagirre Kerejeta**  
*ARGIAko zuzendaria eta bertsolaria.*
- 12:15ean Mahai-ingurua: "Zer eta nola transmititu herri kultura?"  
**Jon Sarasua Maritzalar**  
*Bertsolaria. Euskal kulturgintzan aditua. Mondragon Unibertsitatea. Eskoriatza.*  
**Joseba Tapia Usabiaga**  
*Musikaria. Musika irakaslea.*  
**Estitxu Eizagirre Kerejeta**  
*ARGIAko zuzendaria eta bertsolaria.*

## UZTAILAK 10

### BERTSOLARITZAREN IKERKETA ESPARRU BERRIAK

- 09:15ean "Zer dago bertsolarien garunean? Bertsolaritzaren oinarri neuralak"  
**Kepa Paz-Alonso**  
*Ikertzailea. BCBL, Basque Center on Cognition, Brain and Language.*
- 10:30ean Etenaldia
- 10:45ean "Bertsobota: testuinguruaren eragina poesia sorkuntza automatikoan"  
**Aitzol Astigarraga Pagoaga**  
*Ikertzailea. Informatika Fakultatea. Donostia / San Sebastián. UPV/EHU.*
- 12:00ean Etenaldia
- 12:15ean "Bertso-sorkuntza automatikoa: Azken nobedadeak"  
**Manex Agirrezabal Zabaleta**  
*Ikertzailea. Informatika Fakultatea. Donostia / San Sebastián. UPV/EHU.*
- 13:30ean Laburpen saioa / Bibliografiari buruzko saioa





## **Informazio orokorra**

## MATRIKULA - ESKARIA

Honekin batera eranstean den **matrikula-orria** eta Uda Ikastaroen kontuan ikaslearen izenean egindako **diru-sartze ziurtagiria**, maiatzaren 4tik aurrera eta plaza hutsak gelditzen diren bitartean, [udaikastaroak@ehu.eus](mailto:udaikastaroak@ehu.eus) helbidera bidaliz burutzen da:

UDA IKASTAROEN IDAZKARITZA:

1.042 Postakutxa

20080 DONOSTIA

Tel. 943 21 95 11 | Fax 943 21 95 98

**BBVA ES95 - 0182 - 5709 - 48 - 0010010034**

## MATRIKULA - PREZIOAK

**Matrikula bereziak:**

| Jarduera | (A)  | (B)  |
|----------|------|------|
| - K.1:   | 60 € | 68 € |
| - K.2:   | 80 € | 92 € |

**(A)** Matrikula-prezioa 2015eko maiatzaren 31 arte

**(B)** Matrikula-prezioa 2015eko ekainaren 1etik aurrera

**Izen-ematea behin-betirakoa izan dadin**, berari dagokion erantzuna jaso beharko da. Plazarik ez dagoelako onartuko ez balitz, igorritako dirua itzuliko litzateke. Matrikula onartu zaien ikasleei ez zaie dirurik itzuliko, arrazoi justifikatu bat izan ezik. Ikasleak arrazoiak, ikastaroa hasi baino gutxienez 15 egun aurretik idazkaritzan jakinaraziko ditu.

## OSTATUA (DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN)

Ikastaroen antolaketak egoitza eskaintzen die hala eskatzen duten ikasleei. (Prezioak BEZ barne dira).

**Erreserba bakoitzeko 5 € ordaindu beharko dira kudeaketagatik.**

|   |          |  |
|---|----------|--|
| <b>Unibertsitate egoitza</b><br><b>Manuel Agud Querol</b><br>Berio Pasealekua 9,<br>20018 DONOSTIA<br>www.resa.es | <b>A</b> | <b>39 €</b> pertsona - gau bakoitzeko (ohe bakarreko gela) |
|   | <b>B</b> | <b>73 €</b> 2 pertsona - gau bakoitzeko (bi oheko gela)    |

\* Gosaria ez dago barne. 2 gaueko gutxieneko egonaldia. Gela bakoitzean sukaldea dago. Asteko garbiketa egiten da.

|  |          |   |
|--|----------|---|
| <b>Olarain</b><br>Paseo de Ondarreta nº 24,<br>20008 DONOSTIA<br>www.olarain.com | <b>A</b> | <b>61,05 €</b> pertsona - gau bakoitzeko (ohe bakarreko gela) |
|  | <b>B</b> | <b>86,90 €</b> 2 pertsona - gau bakoitzeko (bi oheko gela)    |

\* Gosaria eta gelaren garbiketa barne.

|   |          |  |
|---|----------|--|
| <b>Villa Alaidi E.A.M.</b><br>Ikasle egoitza<br>Heriz Pasealekua 95<br>20009 DONOSTIA<br>www.villa-alaidi.com | <b>A</b> | <b>30 €</b> pertsona - gau bakoitzeko (gela partekatua)                        |
|   | <b>B</b> | <b>35 €</b> pertsona - gau bakoitzeko (ohe bakarreko gela - komuna partekatua) |

\* Gosaria eta gelaren garbiketa barne. 2 gaueko gutxieneko egonaldia.

\* Sarrera egunean gelaren erreserba 22:00 orduak baino lehen egingo da. (Handik aurrera ez dago harrera-lekurik).

|   |                  |  |
|---|------------------|--|
| <b>Ondarreta Gazte-aterpetxea</b><br>Igeldo Pasealekua 25<br>20008 DONOSTIA<br>www.donostialbergues.org | Ekainak 28a arte | <b>16,85 €</b> pertsona - gau bakoitzeko (gela partekatua) |
|   | 29/06tik 13/09ra | <b>18,75 €</b> pertsona - gau bakoitzeko (gela partekatua) |

\* Gela partekatuek, gosaria barne eta gela garbiketa izango dute.

|   |  |                                       |
|---|--|---------------------------------------|
| <b>La Salle Ikasle egoitza</b><br>Madalena Jauregiberri 2<br>20014 DONOSTIA<br>www.residenciauniversitariasalle.com | Ekainak 14tik Uztailak 3ra<br>Uztailak 13tik Abuztuak 2ra<br>Abuztuak 16tik 28ra | <b>24 €</b> pertsona - gau bakoitzeko |
|---|--|---------------------------------------|

\* Ohe bakarreko gela. Gosaria eta gela garbiketa barne. Bainugela partekatua.

### Hoteletan:

|  |  |
|--|--|
| <b>Viajes Mundo Tres</b><br>Artzai Onaren Enparantza, 7 - 20005 DONOSTIA | Tel. 943 43 05 69<br>Fax 943 43 10 69<br>events@viajesmundotres.es |
|--|--|

## HIZKUNTZAK

Ikastaroak **Euskaraz** izango dira. Hizlaria, ikastaroko hizkuntza ofiziala ez den beste hizkuntza batetan mintzatzen denean, aldibereko itzulpena eskainiko da.

## ZIURTAGIRIAK

Ikastaroak bukatzean, Universidad del País Vasco - Euskal Herriko Unibertsitateak **partehartze agiria** luzatuko die ekitaldi gehienetara etorri diren ikasleei.

## BEKAK

Erakunde antolatzaileek matrikula edo/eta lojamendu bekak eskaintzen dituzte:

- \* **Matrikula-beka** izateak, ikastaroaren egiazko balioaren %50a bakarrik ordaintzeko eskubidea eskaintzen du. (Beka izateak ez du plaza bermatzen)
- \* **Ostatu-bekek**, hautatutako egoitza eta aukeraren araberako ostatu-eskubidea ematen dute eta gau guztien egiazko balioaren %50a ordaindu beharko da, Ikastaroaren hasieraren bezperatik amaitzen den eguneko bezperaraino, bekan adierazten den egoitzan eta bekadun zaren Ikastaro bakoitzean.
- \* Beka-eskariak **inprimaki ofizialean** egingo dira **2015eko apirilaren 24a baino lehenago**, Ikastaroetako Idazkaritzara igorritz.

## MATRIKULAK

- \* 2015eko maiatzaren 4tik aurrera eta plaza hutsak gelditzen diren bitartean.
- \* Beka eskatu baduzu, ez duzu matrikula egin behar baieztapena jaso arte.
- \* Plazen kopurua mugatua denez, hala ikastaroetan nola egoitzean, **izen-ema-tea behin-betirakoa izan dadin**, berari dagokion erantzuna jaso beharko da. Ezinezko gertatuko balitz, Uda Ikastaroak bukatutakoan, dagokizun diru kopurua itzuliko litzaizuke banku transferentzi baten bidez.
- \* **Matrikula exentzioa:** UPV/EHUK etengabeko prestakuntza ikasketetarako onartuta dituen matrikula-exentzio berak aplikatuko dira. (Berezko ikasketei buruzko arautegi bateratua, 2010/12/22ko Gobernu Kontseilua), kudeaketa-gastuak izan ezik.
- \* **Matrikula baliogabetzea:** Uda Ikastaroen Idazkaritzara bidali beharko da matrikula baliogabetzeko inprimakia ([udaikastaroak@ehu.eus](mailto:udaikastaroak@ehu.eus)) ikastaroa hasi baino 15 egun lehenago gutxienez. Matrikula ordaintzeko egindako diru-sarrerara itzuliko zaizu kudeaketa-gastuetarako 10 € izan ezik.
- \* **Egoitza baliogabetzea:** Uda Ikastaroen Idazkaritzara bidali beharko da matrikula baliogabetzeko inprimakia ([udaikastaroak@ehu.eus](mailto:udaikastaroak@ehu.eus)) ikastaroa hasi baino 8 egun lehenago gutxienez. Egoitza erreserba hori ordaintzeko egindako diru-sarrerara itzuliko zaizu kudeaketa-gastuetarako 2,5 € izan ezik.

## BESTELAKO INFORMAZIOA

Informazio gehiago nahi izanez gero, jo ondoko helbide honetara:

Uda Ikastaroen Idazkaritza  
Miramar Jauregia  
Miraconcha Pasealekua, 48  
20.007 DONOSTIA

Tel.: (+34) 943 21 95 11  
Faxa: (+34) 943 21 95 98  
[udaikastaroak@ehu.eus](mailto:udaikastaroak@ehu.eus)  
[www.ehu.eus/cursosverano](http://www.ehu.eus/cursosverano)

---

Argibideak eta izen ematea - Ikastaroen Idazkaritzan  
Miramar Jauregia 20007 DONOSTIA  
1042 Posta Kutxatila - 20080 DONOSTIA  
Tel. 943 21 95 11 - Fax 943 21 95 98  
udaikastaroak@ehu.eus  
www.ehu.eus/cursosverano

**Beka eskaria:** 2015eko apirilaren 24a baino lehen.

**Matrikula eskaria:** Ohikoa: 2015eko maiatzaren 4tik 31ra.  
2015eko ekainaren 1etik aurrera %20 gehiago.

---

Información e Inscripciones - Secretaría de los Cursos  
Palacio Miramar 20007 SAN SEBASTIÁN  
Apartado 1042 - 20080 SAN SEBASTIÁN  
Tel. 943 21 95 11 - Fax 943 21 95 98  
cverano@ehu.eus  
www.ehu.eus/cursosverano

**Solicitud de beca:** Antes del 24 de abril de 2015.

**Solicitud de matrícula:** Entre el 4 y el 31 de mayo de 2015.  
A partir del 1 de junio de 2015, 20% de incremento.

---

## ANTOLATZAILE ETA BABESLEAK / ORGANIZADORES Y PATROCINADORES

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA / UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO  
EUSKO JAURLARITZA / GOBIERNO VASCO  
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA  
DONOSTIAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN

## LAGUNTZAILEA / COLABORADOR

Fundación **BBVA**

